



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2020/11/16an EGINDAKO EZ OHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PENÓ DE LA CORPORACIÓN. Día
16/11/2020.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2020ko azaroaren 16an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte del Pozo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 16 de noviembre de 2020, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte del Pozo.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABSMC3.qJJu>

2020/11/16
Ez Ohiko Plenoa
Pleno extraordinario

1.- HIRI HONDAKIN SOLIDOAK JASO, GARRAIATU ETA BIRRINTZEAGATIKO MANKOMUNITATEKO ZERBITZUAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.

Eskoriatzako Udalak malgutasun neurri fiskal jakin batzuk hartzeko beharra ikusten du, COVID-19aren osasun-krisiaren ondoriozko egungo egoerak Eskoriatzako ekonomian eta enpleguan eta, zehazkiago, saltokiengan, autonomoengan eta enpresariengan duen eragin ekonomiko negatiboari erantzuteko.

Horrela, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren babesean, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, eztabaidatu ondoren eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK BILDU, GARRAIATU ETA BIRRINTZEKO ZERBITZU MANKOMUNATUAGATIKO tasaren % 95eko aparteko hobaria ezartzea 2020ko bigarren seihilekorako, kategoria, talde eta azpitalde hauetan sailkatutako zergadunei:

| | |
|--|-----|
| 3. KATEGORIA. Ostalaritza, Elikagaiak eta Zerbitzuak. | |
| 32. taldea. Ostatu-ematea | |
| Ostatuak | 320 |
| Fondak | 321 |
| Hostalak | 322 |
| Hotelak | 323 |
| Pentsioak | 324 |
| Erresidentziak | 325 |
| 33. taldea. Edaritegiak | |
| Bar-ak | 330 |
| Upategiak | 331 |
| Kafetegiak | 332 |
| Klubak. | 333 |
| Pubak | 334 |
| Snack-Bar | 335 |
| Tabernak | 336 |
| Ardandegiak | 337 |
| 34 taldea. Jateko lekuak | |
| Merenderoak | 340 |
| Jatetxeak, Self-service | 341 |

EZTABAIDAN ESANDAKOAK:

Eluska Irauzu: Guri oso ondo iruditzen zaigu sektore horretarako % 95eko hobari hori; izan ere, agian, sektore ekonomikoen artean, eurak direlako une honetan okerren daudenak, nahiz eta beste sektore ekonomiko batzuk eta pertsonak eta familiak ere gaizki pasatzen ari diren, baina tira, laguntza guztiak ondo daude. Hala ere, berriro esango dugu uste dugula laguntza gehiago onar litezkeela pandemia honek dirauen bitartean, izan urte hasieran edo lehenbailehen. Une honetan horiek dira itxita dauden jarduerak, baita elkarte gastronomikoak ere, baina epe labur edo ertainean ez dakigu beste sektoreren bat ere itxiko den, datuak ez baitira oso itxaropentsuak. Horregatik, beste laguntza osagarri batzuk pentsatzen joan beharko ginateke. Eta hori da, berriz ere, guk eskatu nahi duguna

Josu Ezkurdia: Beste behin ere, gure harridura adierazi behar dugu; izan ere, beste behin ere badirudi Bildu beste herri batean bizi dela edo beste osoko bilkura batean izan dela. Izan ere, ez dauka zentzurik azaroaren amaieran dirulaguntzetarako deialdia egiteko eskatzen hastea, duela bost hilabete, uztailean, aurrekontu handiko zenbait laguntza-programa abian jarri zirenean, eta programa horietako batzuk oraindik ere irekita daudenean enpresek, ostalaritzak eta abarrek laguntzak eskatu ahal izan ditzaten; orain laguntza gehiago eskatzeak ez du erantzunik merezi, nire ustez. Eta ez zait ondo iruditzen eskatzen eta eskatzen aritzea aspalditik gauza asko egiten ari garenean; eta badirudi Bildu beste herri batean bizi dela. Eta hori ez da okerrenea, txarrenea da joan den astean batzorde bat egin genuela laguntza horiek onartzeko, eta Bildu ez zela agertu ere egin, eta berriz ere Osoko Bilkurara etortzen direla, dagoeneko onartzen ari diren gauzak eskatuz. Bilduren eskaerak ez du zentzurik

Eluska Irauzu: Nik ez dut esan onartu dena gaizki dagoenik, eta oso ados gaude onartu denarekin, inolaz ere ez gara esaten ari gaizki daudela, ez dakit nondik atera duzun hori. Gu esaten ari gara da gehiago behar dela, eta horren erakusgarri da Eusko Jaurlaritzak laguntza-programa gehiago jarriko dituela martxan; beraz, Eusko Jaurlaritzak ikusten du premia hori badagoela. Ez duguna ulertzen da Eskoriatzako Udalak edo gobernu-taldean daudenek ez dutela behar hori ikusten. Eta, gainera, hala dirudi bere webgunean jartzen duenagatik, Eusko Jaurlaritzak deituko dituen laguntzak bateragarriak dira beste erakunde edo administrazio batzuen laguntzekin. Ez gara esaten ari ondo edo gaizki dagoenik, gehiago behar direla esaten ari gara, laguntzak onak direlako eta behar direlako. Eta ez dut ulertzen zer arazo sortzen duen guk laguntza gehiago behar direla esateak

Josu Ezkurdia: Eskatzea libre da. Eta berriro esango dut: proposamenak Ogasun Batzordean planteatu behar dira, ez zarete batzordera etortzen, ez duzue inolako planteamendurik egiten batzordean, hona etorri eta dirulaguntza gehiago behar direla esaten duzue, ez duzue esaten ez zenbat, ez zertarako, ez duzue kalkulaten diru hori daukagun ala ez, ez nola finantzatu daitezkeen dirulaguntzak. Benetan proposamenak egin nahi badituzue, ondo aztertu, lan pixka bat egin eta proposamen zehatzak ekarri. Horrela oso gustura entzungo ditugu; baina hona etortzea laguntza gehiago behar direla esanez, laguntza gehiago behar direla esanez... badirudi "kafe orduko" elkarrizketa bat izaten ari garela. Proposamen zehatzak ekarri, diru kopuruekin, nori zuzenduta dauden eta horiek eskuratzeko baldintzak adieraziz. Horrekin guztiarekin, hitz egingo dugu; bitartean, oinarririk gabeko planteamendua iruditzen zaigu. Gu, berriz, batzorde batera joaten garenean, kopuru zehatzekin joaten gara, zergatia esaten dugu, nori lagundu, zenbat suposatuko duten laguntzek, dirua nondik atera, laguntza horiek emanez gero zer utziko dugun egin gabe. Zuek ez duzue ezer proposatzen, bakarrik dirulaguntza gehiago eman behar direla, besterik ez.

Eluska Irauzu: Uste dut arrazoi duzula, eztabaida honetan sartzea alferrikakoa da, ez doa inora, zuek zuen jarrera duzue eta guk gurea. Esaten ari zaretena baloratzera ere ez naiz sartuko. Bakoitzak badaki zertan dabilen, zer informazio jaso duen. Besterik gabe.

2.- VIVIENDA VACIA-BIZIGUNA PROGRAMAREN KUDEAKETA SURADESAREN ESKU UZTEKO ERABAKIAREN INDARRALDIA LUZATZEA.

Udalbatzarrak, 2016ko azaroaren 22an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

LEHENENGOA.- *BIZIGUNE Etxebizitza Hutsaren Programaren kudeaketa SURADESAri, kapital osoa publikoa duen merkataritza-sozietateari, ematea 4 urterako Arrasateko Udalarekin hitzartutako baldintzetan, honen eranskinean jasotzen direnak (ondorioz, Arrasateko Udalari egiten zaizkion aipamen guztiak Eskoriatzako Udalari eginda bezala ulertuko da).*

BIGARRENA.- *Ahalmena ematea Alkateari erabaki hau gauzatzeko beharrezko dokumentu guztiak sinatzeko.*
Sinatutako hitzarmenaren 4. baldintzaren arabera, kudeaketa SURADESAren esku uztea beste 2 urtez luza daiteke.

Interesgarritzat jo denez programa kudeatzen jarraitu dezala SURADESAK, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Beste bi urtez LUZATZEA BIZIGUNE Etxebizitza Hutsaren Programaren kudeaketa SURADESari emateko 2020ko azaroaren 22an Udalbatzarrak hartutako erabakiaren indarraldia.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:15ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- MODIFICACION DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR LA PRESTACION DEL SERVICIO MANCOMUNADO DE RECOGIDA, TRANSPORTE Y ELIMINACION DE RESIDUOS SOLIDOS URBANOS.

El Ayuntamiento de Eskoriatza ve la necesidad de seguir adoptando medidas fiscales de flexibilización para responder al impacto económico negativo que la actual situación derivada de la crisis sanitaria del COVID-19 está produciendo sobre la economía y el empleo de Eskoriatza y más concretamente en comercios, autónomos y empresarios.

Así, al amparo del art. 3 de Decreto Foral-Norma 3/2020, de 12 de mayo, por el que se modifican las entregas a cuenta de 2020 por el Fondo Foral de Financiación Municipal y se establecen medidas presupuestarias y tributarias para entidades locales, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, previo debate y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

Fijar para el segundo semestre de 2020 una bonificación extraordinaria del 95% en la tasa POR EL SERVICIO MANCOMUNADO DE RECOGIDA, TRANSPORTE Y ELIMINACION DE RESIDUOS SOLIDOS URBANOS a los contribuyentes clasificados en las siguientes categorías, grupos y subgrupos.

| CATEGORIA 3. Hostelería, Alimentación y Servicios. | |
|--|-----|
| Grupo 32. Hospedería | |
| Posadas | 320 |
| Fondas | 321 |
| Hostales | 322 |
| Hoteles | 323 |
| Pensiones | 324 |
| Residencias | 325 |
| Grupo 33. Bebidas | |
| Bares | 330 |
| Bodegas | 331 |
| Cafeterías | 332 |
| Clubes | 333 |
| Pubs | 334 |
| Snack-Bares | 335 |
| Tabernas | 336 |
| Vinaterías | 337 |
| Grupo 34. Comidas | |
| Merenderos | 340 |

INTERVENCIONES HABIDAS EN EL DEBATE:

Eluska Irauzu: A nosotros nos parece muy bien esta bonificación del 95% para este sector, porque quizás, en cuanto a sectores económicos se refiere, ellos son los que en este momento peor lo están pasando, aunque también otros sectores económicos y personas y familias también lo están pasando mal, pero bueno, todas las ayudas están bien. No obstante, otra vez volvemos a decir que creemos que se podrían aprobar más ayudas al menos mientras dure esta pandemia, a comienzos de año o cuanto antes. En este momento estas son las actividades que están cerradas, también las sociedades gastronómicas, pero en corto o medio plazo no sabemos si algún otro sector también se cerrará, porque los datos no son muy esperanzadores. Por eso, debiera de irse pensando en otras ayudas complementarias. Y es eso lo que, una vez más, nosotros queremos pedir.

Josu Ezkurdia: Una vez más, nosotros debemos de manifestar nuestra sorpresa; porque una vez más parece que BILDU vive en otro municipio o asiste a otro pleno. Porque a finales de noviembre empezar a pedir que se convoque subvenciones cuando hace cinco meses, el mes de julio, se pusieron en marcha varios programas de ayuda con un alto presupuesto, que algunos de esos programas todavía están abiertos para que las empresas, la hostelería,.. puedan pedir ayudas; y venir ahora pidiendo más ayudas, creo que no merece respuestas. Y no me parece bien el seguir pidiendo y pidiendo cuando estamos, desde hace tiempo, haciendo un montón de cosas; y parece que BILDU vive en otro municipio. Y eso no es lo peor, lo peor es que la semana pasada hicimos una comisión para aprobar estas ayudas y BILDU no se dignó en aparecer, y de nuevo vienen al Pleno pidiendo cosas que ya se están aprobando. La petición de BILDU no tiene sentido.

Eluska Irauzu: Yo no he dicho que lo que se ha aprobado esté mal, y estamos muy de acuerdo con lo que se ha aprobado, de ninguna manera estamos diciendo que están mal, no se de dónde has sacado eso. Lo que nosotros estamos diciendo es que hace falta más; y muestra de ello es que el propio Gobierno Vasco va a poner en marcha más programas de ayudas; con lo que el Gobierno Vasco ya ve que hay esa necesidad. Lo que no entendemos es que el Ayuntamiento de Eskoriatza, o quienes están en el equipo de gobierno, no ven esa necesidad. Y encima, así lo parece por lo que pone en su página web, las ayudas que va a convocar el gobierno vasco son compatibles con las ayudas de otras entidades o administraciones. No

estamos diciendo que está bien o mal, estamos diciendo que hacen falta más porque las ayudas son buenas y hacen falta. Y no entiendo qué problema genera el que nosotros digamos que hacen falta más ayudas.

Josu Ezkurdia: El pedir es libre. Y volverá a decirlo. Las propuestas hay que plantearlas en la Comisión de Hacienda, no venís a la comisión, no hacéis en la misma ningún planteamiento, venís aquí diciendo que hacen falta más subvenciones, no decís cuantías, ni para qué, no calculáis si tenemos o no ese dinero, como pueden financiarse. Si de verdad queréis hacer propuestas, analizar bien, trabajar un poco y traer propuestas concretas. Así las oiremos muy a gusto; pero venir aquí diciendo que hacen falta más ayudas, que hacen falta más ayudas,.. parece que estamos manteniendo una conversación de “la hora del café”. Traer propuestas concretas, con cantidades económicas, indicando a quién van dirigidas, las condiciones para acceder a ellas. Con todo eso, hablaremos, porque mientras tanto nos parece una planteamiento sin fundamento. Nosotros, en cambio, cuando vamos a una comisión, vamos con cantidades concretas, decimos el porqué, a quien ayudar, cuánto van a suponer, de dónde sacar el dinero, que dejaremos de hacer si damos esas ayudas. Vosotros, no proponéis nada, solo que hay que dar más subvenciones, nada más.

Eluska Irauzu: Creo que tienes razón, entrar en este debate es del todo inútil, no va a ninguna parte, vosotros tenéis vuestra postura y nosotros la nuestras. No voy a entrar ni a valorar lo que estáis diciendo. Cada uno ya sabe en qué anda, qué información ha recibido. Sin más.

2.- PRORROGA DE LA VIGENCIA DE LA ENCOMIENDA DE GESTION DEL PROGRAMA VIVIENDA VACIA-BIZIGUNA A SURADESA

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 22 de noviembre de 2016, adoptó, entre otros el siguiente acuerdo:

PRIMERO.- *Encomendar la gestión del Programa de Vivienda Vacía- BIZIGUNE a SURADESA, Sociedad mercantil de capital íntegramente público , con una duración de 4 años y según los mismos requisitos conveniados con el Ayuntamiento de Arrasate y que constan en el anexo a la presente.(En consecuencia, toda referencia al Ayuntamiento de Arrasate será entendida como relativa al Ayuntamiento de Eskoriatza)*

SEGUNDO.- *Facultar a la Alcaldía para la firma de cuantos documentos sean precisos para la ejecución de este acuerdo.*

Según la cláusula 4 del convenio formalizado cabe prorrogar por otros 2 años más la duración de la encomienda.

2020/11/16
Ez Ohiko Plenoa
Pleno extraordinario

Considerando de interés que SURADESA siga gestionando el Programa, por unanimidad, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

PRORROGAR durante dos años más el plazo de vigencia de la encomienda de gestión del Programa de Vivienda Vacía-BIZIGUNE a SURADESA acordada por el Pleno en fecha 22 de noviembre de 2020.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:15 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.